



# AZTERLANAREN LAGINA: EAE-KO KONTRATUAK ETA DIRULAGUNTZAK BERDINTASUN-KLAUSULEKIN (2020-2021)

| AZTERLANAREN LAGINA |     | %       |
|---------------------|-----|---------|
| KONTRATUAK          | 100 | % 48,31 |
| DIRULAGUNTZAK       | 107 | % 51,69 |
| GUZTIZKOA           | 207 | % 100   |


2020ko 2. sei hilekoaren eta 2021eko 1. sei hilekoaren artean argitaratutako tresnak



## ERABILITAKO BERDINTASUN-KLAUSULAK PROZEDURAREN FASEAREN ARABERA



## KLAUSULA ERABILIENAK KONTRATUETAN



## KLAUSULAK KONTRATUETAN XEDEAREN ARABERA



## KLAUSULAK DIRULAGUNTZETAN XEDEAREN ARABERA



# BERDINTASUN-KLAUSULAK EAE-KO KONTRATUETAN ETA DIRULAGUNTZETAN

## ONDORIOAK

1

### KONPROMISO INSTITUZIONALA

Euskal administrazioek aurrera egiten jarraitzen dute kontratueta eta dirulaguntzetan klausula sozialak aplikatzen. Berdintasun-klausulak dira erabilienak

2

### KONTRATUAK ETA DIRULAGUNTZAK BERDINTASUN-KLAUSULEKIN

- o Ikusten da, bosturtekoan, berdintasun-klausulak dituzten kontratuen eta dirulaguntzen kopuruak gora egin duela, araudia betez
- o Gizartean, enpresan eta prozeduretan eragina duten helburu eraldatzaileek dibertsifikatzen jarraitzen dute, nahiz eta klausula generikoen erabilerak ohikoa izaten jarraitzen duen

3

### BERDINTASUN-KLAUSULAK

Klausula hauek aplikatzea, berez, ez da helburua. Klausulak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerak alderantzizatzeko tresnatzat hartu behar dira, intzidentzia-testuinguruan hauteman badira

4

### GENERO-ZEHARKAKOTASUNAREN ALDEKO INSTITUZIONALITASUNA

- o Genero-ikuspegiaren zeharkakotasunaren aldeko erakunde-inguruneak berdintasun-klausulak pixkanaka txertatzen laguntzen du Administrazio Publikoen kontratu eta dirulaguntzetan
- o Indarrean dagoen berdintasun-araudia eta laguntza-gidalerroak alaketaren eragileak dira, eta aurrera egiten laguntzen dute

5

### OZTOPOAK, INERTZIAK ETA AURRE EGIN BEHARREKO ERRONKAK

- o Aldaketarekiko eta erosotasun-gunetik irteteko erresistentziak. Ez dago genero-instituzionalizazio nahikorik
- o Sentsibilizazio eta gaitasun tekniko gehiago klausula sozialei, berdintasunari eta genero-ikuspegiari buruz
- o Izapidetzeari ekin aurretik proposatu beharreko klausulen egokitasunari/zilegitasunari buruzko hausnarketari denbora eskaintzea falta da
- o Klausulen betetze-mailaren jarraipena eta emaitzen neurketa ez dira behar adina aplikatzen

# BERDINTASUN-KLAUSULAK EAE-KO KONTRATUETAN ETA DIRULAGUNTZETAN

## JARRAITU BEHARREKO PROPOSAMENA

1

### ERABILI BEHARREKO BERDINTASUN-KLAUSULAK ZEHAZTEA

esku hartzen duen errealitateari buruzko diagnostikoak eta hausnarketak eginez, antzemandako genero-arrakalak ixtera bideratutako aldaketak eta xedea bermatzeko



2

### KLAUSULAK PROZEDURAREN FASE GUZTIETAN SARTZEA

berariaz eta kontratuaren edo dirulaguntzaren xedetik berdintasun-irizpideak adierazita. Klausula orokorrek, automatikoki aplikatuek, ez dituzte beti nahi diren aldaketak sorrarazten



3

### GIZA BALIABIDE NAHIKOAK ETA ESKUMENDUNAK

hauekin koherentzian: koordinazio eta inplikazio handiagoa klausulen arrazoiketan, aurretiazko diagnostikoen arabera, trebakuntza handiagoa, eta kontrol, jarraipen eta ebaluazio sakonagoak



4

### ARAUAK ETA GIDALERROAK

kontratazioan eta dirulaguntzetan genero-ikuspegia txertatzeko, berdintasun-esparru juridikoaren arabera



5

### SAILEN ARTEKO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

alderdiek ezagutzen dituzten egitura formaletan eta elkarrikketa-bideetan laguntzea, bereziki, berdintasun-organoaren eta kontratazio-eta/edo dirulaguntza-arloen artean



6

### ELKAR IKASTEKO ETA JARDUNBIDE EGOKIAK TRUKATZEKO IKUSPEGIAK

kontratazioan eta dirulaguntzetan parte hartzen duten langileen artean. Klausulak sartzean erreferentzia eta bideratzaile izan behar dute



7

### BETEBEHARREN JARRAIPEN-, KONTROL-ETA EGIAZTAPEN-MEKANISMOEK

premiazko erronka izaten jarraitzen dute. Ez dago ia horrelakorik betebeharren balorazioan. Irtenbide bat: Informazio-protokoloak eta -sistemak, klausulak zuzen betetzen direla eta haien inpaktua egiaztatu eta kontrastatzeko

